

Garabidek formazio saioak antolatu ditu Ekuadorren bi telebista kate sor ditzaten kitxuaz

2009/01/27

Garabide elkarteak formazio egitasmo bat antolatu du, Ekuadorren bi telebista kate berri sortzeko, kitxuaz emitituko dutenak. Hori dela-eta, otsailaren lehendabiziko hamabostaldian **hamar laguneko taldea** izango da Euskal Herrian, batzuk Pichincha eta Umbabura probintzietatik etorriak eta besteak Cotopaxitik, denak Ekuadorkoak.

Bi aste horietan, **oinarrizko formazioa** emango zaie indigenen ordezkariari, han daudenean gai izan daitezten telebista bat abiarazteko: aholkularitza lana, formazioa enpresak sortzeko, erakutsi kooperatibak eta enpresa ereduak, baita telebista esperientziak Euskal Herrian ere, ohararazi hizkuntzaren estandarizazio beharraz, eta erakutsi egungo programazio ereduak eta langintza multimedia. Programa hau osatzeko, Garabide elkarteak Huhezi fakultatearen eta bertako irakasleen laguntza izan du, eta baita Euskal Telebista, Goiena Telebista eta Goierri Telebistarena ere, EHUKo irakasleena eta beste zenbait profesionalena.

Helburuak

Formazio egitasmo honek hainbat helburu ditu:

- Kitxua indartu eta garatzea, telebista kanal berrien bidez.
- Kitxua komunitateak tarte bat izatea Ekuadorko hedabideetan, bere kultura, hizkuntza eta nortasuna garatzeko.
- Herri indigenen benetako irudi eta aldarrikapenen berri ematea.
- Partaidetza soziala bultzatzea.
- Kulturen arteko espazioak zabaltzea telebistan, eta berau Ekuadorko kultura aniztasunaren isla bihurtzea.

Egitaraua

Otsailaren 2tik 13ra bitartean, Ekuadorko espedizioak egitarau estua izango du. Formazio saioak **Huhezin**

izango dira batez ere, eta bisitak Euskal Herrian barrena, lekuan lekuko esperientziak ezagutzeko.

Garabide elkarteak iaz hasi zen proiektu honetan lanean. Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza du, eta elkarlanean ari da Consejo de Desarrollo de las Nacionalidades y Pueblos de Ecuador erakundearekin, Codenpe, Kawsay erakunde indigenarekin eta MICC, Cotopaxiko nekazari eta indigenen mugimendurekin.

